

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 4703

*AGINDUA, 2014ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren gaietan, 2014-2015 ikasturtean, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko bekak berritzeko deia egiten da.*

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, doktoretza-titulurik ez, baina goi-mailako unibertsitate-titulazioa duten gazteei zuzendutako bi bideri ekin die, unibertsitate-komunitateari eta komunitate sozio-industrialari beren eginkizunak garatzeko langile egokiak prestatzen laguntzeko programen sustatzaile gisa dagokion partaidetza aktiboaz jabetuta. Lehenengo bidearen helburua etorkizuneko doktoreak prestatzen laguntzea da, doktoreok, aurrerago, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza- eta/edo ikerketa-zentroetan edo enpresen I+G unitateetan jardun ahal izan dezaten, hala nola promozio berrien prestatzaile izan daitezen, eta EAEn ikerketa eta industria-jarduera aurreratua garatzeko oinarrizko sarea osa dezaten.

Programa honen bigarren bidea, EAerako interesgarriak diren arloetan master-titulua edo balio-kideak lortzeko, atzerrian ikasketak egiteko bekak ematea da. Pentsatzen da onuradunek ikasi beharrekoen helburua dela daukatena baino prestakuntza aurreratuagoa lortzea, espezializatua edo diziplina artekoa, eta espezializazio akademiko edo profesionalera bideratua.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira herri-administrazioen diru-laguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak, betiere EAeko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginari jarraiki (arazoaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartu zuen); era berean, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideei jarraiki.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak sail honi eskumenak eman dizkio zientzia-alorreko politikan, eta oinarrizko ikerketa orientatu eta aplikatuaren sustapen- eta koordinazio-arloan.

Horrenbestez, abenduaren 20ko 4/2013 Legea, 2014ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, onetsi denez,

#### EBATZI DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea, hala nola 2013-2014 ikasturterako emandako bekak berritzeko deia egitea, espezializazio-ikasketak egin daitezen atzerrian 2014-2015 ikasturtean, EAerako interesgarriak diren gaietan master ofizial titulua lortzeko.

##### 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetako programaren guztizko zenbatekoa, 2014. urteko aurrekontu-erabilera (88.636 euro) eta 2015erako konpromiso-kredituak (58.950 euro) kontuan hartuta, 147.586 euro da, EAeko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura.

### 3. artikulua.– Programa honen helburua.

Programa honen helburua unibertsitateko goi-mailako titulua edo parekoa duten pertsonen espezializazio akademikoa edo profesionala lortzeko bidea erraztea da. Pertsona horiek unibertsitateko master-programa edo pareko batean, atzerrian, espezializazio-ikasketak eginez trebatuko dira, ondoren aipatzen diren arloetan, batez ere.

### 4. artikulua.– Lehentasunezko arloak.

Arlo hauek izango dute lehentasuna deialdi honetan:

#### 1. arloa: Lehiakortasuna:

1.1.– Materialak eta haien prozesuak.

1.2.– Garraioa, logistika eta mugikortasuna.

1.3.– Energia garbiak. Iraunkortasuna. Ingurumena.

1.4.– Eraikuntza.

1.5.– Ekonomia soziala eta kooperatibismoarena.

#### 2. arloa: Informazioaren eta komunikazioaren gizartea:

2.1.– Informazioaren teknologiak.

2.2.– Komunikazioen teknologiak.

2.3.– Enpresa digitala eta administrazio digitala.

2.4.– Matematika aplikatuak.

2.5.– Hizkuntzaren industriak.

#### 3. arloa: Bizi-kalitatea:

3.1.– Osasuna.

3.2.– Kohesioa eta gizarte-ekintza.

3.3.– Turismoa, kontsumoa, aisialdia eta kirola.

3.4.– Arteak. Kultura Ondarea.

#### 4. arloa: Baliabide biziak:

4.1.– Biozientziak.

4.2.– Bioteknologia.

4.3.– Arrantza eta nekazaritzako teknologiak eta Nekazaritzako elikagaietarakoak.

4.4.– Natura zaintzea. Biodibertsitatea.

### 5. artikulua.– Beken ezaugarriak.

1.– Agindu honetan deitutako beken bidez gastu hauek ordainduko dira:

a) Egonaldi-gastuak.– Hilean 1.350 euro eta 1.816 euro artean, ikastegia zer herrialdetan dagoen. Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak beka esleitzeko ematen duen ebazpena-

ren bidez finkatuko da behin betiko zenbatekoa, ebaluazio-batzordeak egindako proposamenaren arabera; horretarako, xede-herrialde bakoitzaren erosteko ahalmen-parekotasuna aplikatuko du, kontuan hartuta Nazioarteko Moneta Funtsak herri bakoitzerako argitaratutako barne-produktu gordinari buruzko azken datuak.

b) Bidaia-gastuak.— Zentrorako joan-etorriko bidaia baten gastua osorik edo partez ordaintzeko zenbatekoa Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen esleipen-ebazpenean finkatuko da, taula honen arabera:

Irteten den lekutik destinorainoko distantzia	Bidaia-gastuetarako laguntza
Gehienez 1.000 km	300 euro
1.001-2.500 km	600 euro
2.501-11.000 km	1.000 euro
11.000 km baino gehiago	1.200 euro

Agindu honen ondorioetarako, eskatzailea EAEn erroldatuta dagoen probintziako hiriburua hartuko da jatorri-hiritzat.

c) Matrikula-gastuak.— Ikastaroen tasak ordaintzeko 6.000 euro emango dira gehienez urtean, beka-eskabidean agiri bidez adierazi eta egiaztatuko den kostu-aurreikuspenaren arabera.

2.— Aurreko atalean adierazitako gastuak ordaintzeko bekaren behin betiko zenbatekoa deialdi honen ebazpenean adieraziko da.

3.— Ordainketak hiru hilean behin egingo dira, hiruhilekoaren aurreko hilaren hasiera eta dago-kion hiruhilekoaren lehen hilabetearen amaiera bitartean. Honakoak izango dira hiruhilekoak: 1.— urria-abendua, 2.— urtarrila-martxoa, 3.— apirila-ekaina, 4.— uztaila-iraila.

Dirua jasotzeko, ezinbestekoa izango da 12. artikuluan jasotako baldintzak betetzea.

4.— Bekadunak erantzukizun zibileko, istripuetarako eta bidaiako laguntzarako aseguru bat izango du.

6. artikulua.— Eskabideak formalizatzea, haiek aurkezteko epea eta dokumentazioa.

1.— Eskabidea egiteko, eskaera-orria erabili beharko da; eskaera-orri hori, berriz, modu telematikoz lortu ahal izango da, sailaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net). Horretarako, izangaiak alta hartu beharko du erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete.

2.— Eskabide telematikoa osorik bete eta gero, eskatzaileak aukera du bere burua identifikatzeko, Egoitza Elektronikoak sinadura elektronikorako onartzen duen edozein sistemaren bidez; horrela, eskabidea eta hari derrigorrez erantsi beharreko dokumentazio guztia (agindu honetako 7. artikuluan aipatua) erregistratu ahal izango dira formatu elektronikoa.

Aurkeztu beharko diren dokumentu elektronikoak, bere aldetik, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duen 4/2010 Errege Dekretura eta hura garatzen duen arautegira egokitu beharko dira.

3.— Eskatzailea ezin bada identifikatu sinadura elektronikoa bidez, eskaera telematikoa bete ondoren, haren inprimaki ofiziala lortuko da paper-euskarrian, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen

(Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen) 38.4 artikuluan aipatutako edozein lekutan sinatuta aurkezteko, hala nola honako hauetan: EAEko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketak eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutako bulegoetan eta «Zuzenean» herritarrentzako zerbitzuko bulegoetan (Bizkaian, Kale Nagusiko 85. zenbakia, 48011-Bilbo; Gipuzkoan, Andia kaleko 13. zenbakia, 20003 Donostia; eta Araban, Ramiro de Maeztu kaleko 10. zenbakiko beheka, 01008 Vitoria-Gasteiz). Halakoetan, eskabide-orria sinatu, eta helbide honetara bidaliko da:

Eusko Jaurlaritza  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.  
Zientzia Politikarako Zuzendaritza  
Erreferentzia: «Atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko beka»  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz.

Eskabidea identifikatzeko zenbakia jasoko du inprimaki ofizialak. Inprimaki ofizial hori eskuz edo elektronikoki aldatuz gero, baztertu egingo da eskabidea.

Eskaera egiteko inprimaki-eredua agindu honetako I. eranskinean dago.

4.– Eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Aplikazioaren bidez aurkeztu beharreko dokumentazioa hau da:

a) 2013-2014 ikasturtean egindako jarduera ekonomikoei buruzko txostena (gehienez 2 orrikoa), masterraren arduradunaren edo tutorearen sinaduraren bidez berretsita.

b) Jatorrizko espediente akademikoa edo haren kopia konpultsatua, beka izan bitartean lortutako kalifikazio akademikoekin.

c) 2014-2015 ikasturtean egin beharreko ikasketa-programaren memoria (2 orrialde gehienez). Beka berri behar izanez gero, ikastaroen edukia eta gaiak adierazi behar dira, bai eta ikastaro bakoitza noiz hasi eta noiz amaitzen den ere. Aurrekoa bermatzen duen dokumentazio ofiziala ere aurkeztu beharko da.

d) Eskatzaileak egindako matrikula-gastuen kalkulua eta kalkulu hori bermatzen duten agiri ofizialak. Kalkulu horretan tasa akademikoak bakarrik hartuko dira kontuan. Tasa akademikoak bat baino gehiago badira, bereizita eta labur deskribatuta aurkeztuko dira.

7. artikulua.– Eskatzaileen betebeharrak.

Beka lortzeko, eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

1.– Lortu eta baliatu izana 2013ko maiatzaren 28ko Agindu bidez deitutako beka. Agindu hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena izan zen, eta, haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren gaietan, 2013-2014 ikasturtean, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko beketarako deia egin zen.

2.– Masterraren iraupena bi urtekoa zela adierazi izana 2013-2014ko deialdiko eskabidean.

3.– Masterraren lehen urtea 2013-2014 ikasturtean gaindituta edukitzea.

## 8. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskaerak aurkezteko epean aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa, edo konpon daitezkeen akatsak baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa konpontzeko, edo nahitaezko agiriak aurkezteko aplikazio telematikoaren bidez, eta, gainera, esango zaio aurrekoa egin ezean eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera izan beharko duen ebazpena eman ondoren.

Zuzentzeko eskaera jakinarazteko, agindu honen 9. artikuluaaren laugarren paragrafoan ezarritako prozedura erabiliko da.

## 9. artikulua.– Ebazpena, ebazteko epea, jakinarazpena, errekurtsioak eta publikotasun-prozedura.

1.– Unibertitate eta Ikerketa sailburuordearen berariazko ebazpen bakar baten bidez emango edo ukatuko dira agindu honetan aurreikusitako bekak.

Agindu honen 7. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituzten eta eskaera forma egokian eta epearen barruan aurkezten duten eskatzaile guztiek lortuko dute beka.

2.– Ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta onuradunen zerrenda eta dagokien dirua jasoko ditu; halaber, eskabidea ukatu eta baztertu zaien zerrenda bana jasoko du, eta ukatzeko eta baztertzeko arrazoiak azalduko.

3.– Ebazpen hori deialdi-agindu hau argitaratu eta biharamunetik sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.– Jakinarazpena aipatu ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratuta egingo da (Euskadi.net/).

5.– Aurreko 4. idatzi-zatia bazter utzi gabe, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak interesdunei bidali ahal izango dizkie egindako argitalpenen abisuak, SMS edo mezu elektronikoen bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena egoitza elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako hilabeteko epean.

7.– Diru-laguntzen ebazpena EHAAan argitaratuko da denek horren berri izan dezaten, ebazpen horren jakinarazpenak administrazio-bidean irmotasuna eskuratu ondorengo hilabetean.

8.– Agindu honetan xedatutako beken onuradunei ez zaie laguntzarik emango, ez emandakoa ordainduko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan bukatu gabeko itzultze- edo zehatze-prozeduraren bat badute, izapidetze-bidean.

## 10. artikulua.– Beka onartzea.

1.– Onuradunak 10 egun naturaleko epea izango du, ebazpena Euskadi.net-en argitaratuta jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, bekari berariaz eta idatziz uko egiteko. Hala egin ezean, beka onartu egin duela ulertuko da. Uko egiteko dokumentua aplikazio telematikoaren bidez igorri beharko da.

2.– Onuradunek beka onartzen badute, agindu honetan jasotzen diren eskubideak onartzen dituztela eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dutela ulertuko da.

11. artikulua.– Bekari uko egitea.

Bekaz baliatzeko aldia hasita badago, onuradunak Zientzia Politikarako Zuzendaritzari idazki justifikatua igorri beharko dio laguntzari uko egiteko, ondorioak izaten hasi baino 10 egun lehenago. Uko egite hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak onartu beharko du berariaz eta, hala gertatuz gero, onuradunak egonaldi-gastuetarako eskubideak galduko ditu, uko egiteak ondorioak izango dituen hiruhilekoaren lehenengo egunetik, eta lehen hiruhilekoan egin badio uko laguntzari, bai eta matrikula- eta bidaia-gastuetarako eskubideak ere.

12. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Beka onartu duten onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Onuradunak ikastaroaren lehen egunean joan behar du ikastegira. Programaren arduradunak onuraduna bertaratu dela egiaztatu beharko du, eta onuradunak agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo 10 egunak izango ditu idazki hori bidaltzeko.

b) Ikastegiak emandako epean ordaintzea matrikula, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jatorrizko ordainagiriak aurkeztea, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo 10 egunen barruan. Matrikularen benetako zenbatekoa emateko ebazpenean aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, minorizatu egingo da.

c) Onuradunak ikastegi berean egin behar ditu ikasketak, bekak irauten duen bitartean. Ezingo da ikastegiz aldatu.

d) Aukeratutako programan edozein aldaketa egin aurretik, baimena eskatu behar dio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari. Baimen-eskabidea arrazoitu egin behar da, eta programaren arduradunaren edo onuradunari esleitutako balizko tutoreen bermea izan behar du. Eta horiek, egoki iritziz gero, edo Zientzia Politikarako zuzendariak hala eskatuz gero, bekadunaren errendimendu akademikoari buruzko informazioa bidali ahal izango dute.

e) Zer ikastarorako eman zaion laguntza, hura gainditu behar du. Bestela, emandako laguntza itzuli egingo da, kasuan kasuko itzulketa-espeditentea izapidetu ondoren.

f) Ikasturtea amaitu eta hilabeteko epean, izandako jarduera akademiko guztia, programaren arduradunak edo tutoreak bermatuta, jasoko duen txosten labur bat aurkeztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzan, jatorrizko espeditente akademikoarekin edo haren kopia konpultsatuekin batera, beka izan bitartean lortutako kalifikazio akademikoak barne.

g) Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, onuradunaren jarduera akademikoaren errendimenduaren jarraipena egiteko, ezarritako arau guztiak onartu behar ditu.

h) Diru-laguntza jasotako egoeraren xedea edo izaera asko aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari laguntzea jarduera horien egiaztapen-, inspektzio-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

i) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia ematea, laguntzen xedek fiskalizatzeko.

j) Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan adierazitako guztia.

2.– Dirua jasotzeko, betebeharrak horiek bete egin beharko dira.

13. artikulua.– Bateriaezintasunak.

1.– Beka hau jasotzea bateraezina da xede bereko beste beka bat jaso izanarekin edo jasotzearekin, hala nola prestatzen ari diren ikertzaileen estatutua onartzen duen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuaren aplikazio-esparruko programetako beka edo, arau horretan jasota egon gabe, prestatu eta doktore-tesia egin dezaten ikertzaileentzat diren antzeko beste programa batzuetako beka jaso izanarekin edo jasotzearekin.

2.– Beka hauek espezializatzeko direnez gero, beren indarraldia bukatzean, ezin izango da programa honetako beste bekarik jaso.

3.– Beka hau jasotzea bateraezina da lanaldi osoko lan batekin edo urtean 6.000 euro baino gehiagoko ordainsari gordina duen lan batekin.

14. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagokio laguntzak kudeatzea.

15. artikulua.– Bekaren baldintzak aldatzea.

Beka emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, beka emateko ebazpena ere alda daiteke, betiere bekaren helburua beteta dagoela ulertzen bada, eta, hala dagokionean, erakunde honek nahiz beste herri-administrazioen batek emandako diru-laguntzak eta laguntzak aldi berean jaso direla ulertzen bada, eta, betiere, diru-laguntzaren onuradun izateko agindu honetan ezarritako gutxienezko betekizunak bete badira. Horretarako, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak behar den likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako beken zenbatekoak berriz doitu dira, eta bekak emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko. Beraz, pertsona eta erakunde onuradunek sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte. Baldintzak aldatzeak emandako diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra badakar, 22. artikuluan araututako itzultze-espeditentia hasiko da.

16. artikulua.– Jarraipena.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egin beharko du onuradunak egin dituen espezializazio-ikasketen jarraipen zientifiko eta teknologikoa. Horretarako, prozedura egokiak ezarriko ditu, eta egoki irizten dituen organo, batzorde edo adituak izendatu ahal izango ditu, laguntzaren aplikazioaren beharrezko jarraipen- eta egiaztapen-jarduerak gauzatzeko, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria aurkez dadila eskatzeko, agindu honetan kasu bakoitzerako berariaz xedatzen den informazioaz gainera.

17. artikulua.– Ikuskatzea eta kontrolatzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak beharrezko ikuskatze- eta kontrol-lanak egin ahal izango ditu agindu honen helburuak betetzen direla bermatzeko, betiere Kontrol Ekonomikoko Bulegoak esleituta dauzkan eginkizunak baztertu gabe.

18. artikulua.– Ez-betetzea.

Bekaren onuradunek ez badute betetzen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluko arau-hausteren bat egin badute edo agindu honetan eta gainerako arau aplikagarrietan nahiz emakida-ebazpenean ezarritako baldintzaren bat, organo kudeatzailearen zuzendariak, ebazpen bidez, adieraziko du, emateke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu duela eta, hala behar bada, jasotako zenbatekoak eta laguntza

ordaindu zenez geroztiko legezko interesak itzuli behar dizkiola Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, bidezkoak diren gainerako jarduketak eragotzi gabe. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzak bermatzeko eta itzultzeko araubide orokorra arautzen duen eta diru-laguntza horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde lankideek bete beharreko baldintzak, araubidea eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan zehaztutakoaren arabera. Diru-kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira bidezko lege-ondorioetarako, eta erantzukizunen araubidea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan araututakoa izango da.

19. artikulua.– Beka jasotzeko eskubidea galdu izana deklaratzeko, eta, beharrezkoa bada, hura itzultzeko prozedura.

Agindu honetan xedatutakoa betetzen ez den kasuetan, hau izango da prozedura:

a) Prozedura abiatu eta ebazteko ardura Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena izango da.

b) Zientzia Politikarako zuzendariak itzultzeko prozedura hasi dela adieraziko dio interesdunari. Prozedura hasiz gero, eten egingo dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo epea alegaziorik egin gabe igaro bada, prozedura amaitu egingo da Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak hartutako eta Zientzia Politikarako zuzendariak jakinarazitako ebazpen bidez.

Itzultzeko prozedura ebazteko eta jakinarazteko, hamabi hilabete izango dira, gehienez ere.

Ebazpen horretan bete beharrekoak ez direla bete onartzen bada, beka jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko da, eta, hala behar bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari dagozkion kopuruak itzuli behar dizkiola, ebazpena jakinarazten zaionetik bi hilabeteko epean, gehienez ere. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

d) Borondatezko epean laguntza itzuli ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari horren berri emango zaio, aplikagarri den legezko arauak xedatutakoa kontuan hartuta jarduteko.

20. artikulua.– Datu pertsonalak.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan –Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan– eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean –Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategi Publikoak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzkoan– ezarritakoari jarraiki, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatzeko eta argitaratzeko. Datuok Hezkuntza, Unibertsitate eta Kulturako sailburuak 2010eko urriaren 4an emandako Aginduan jasotzen den «Bekadunentzako laguntzak» izeneko fitxategian sartuko dira (Zientzia Politikarako Zuzendaritzako 3. fitxategia da); agindu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategi jakin batzuk arautzen dira.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak; horretarako, honako helbide honetara jo behar da: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetara aurkezten diren pertsonak baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.



#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan xedatu gabekoari dagokionez, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa hartuko da aintzat.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakiok Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari, eta, horretarako, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik, hilabeteko epea egongo da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 10.7 artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera. Edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta, horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik, bi hilabete egongo dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a eta 46.1 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko azaroaren 4a, asteartea

## I. ERANSKINA

ESKAERA ORRIA		Erreferentzia			
		Barne-kodea			
EAE-RAKO INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN GAIETAN ATZERRIAN ESPEZIALIZATZEKO IKASKETAK EGITEKO BEKAK BERRITZEA, 2014-2015					
A) DATU PERTSONALAK					
Abizenak eta izena *					
NAN/AIZ/Pasaportea *					
Helbidea *		PK *			
E-posta *		1. telefono-zenbakia*		2. telefono-zenbakia *	

B) IKASKETA-PROGRAMA					
Titulua *					
Unibertsitatea * Fakultatea/Zentroa *		Herrialdea *			
2. ikastaroaren hasiera-data *		2. ikastaroaren amaiera-data *			
Indarreko laguntzaren erreferentzia *					

**C) EGIN BEHARREKO IKASKETEN PROGRAMARI BURUZKO MEMORIA**

Gehienez ere 7.000 karaktere erabiliz (2 orrialde gutxi gorabehera), beka berrituz gero egin beharreko ikasketa-programari buruzko informazioa eman behar duzu, eta ikastaroen edukia, gaiak eta ikastaroaren hasierako eta amaierako datak adierazi.

**D) EGINDAKO IKASKETEN PROGRAMARI BURUZKO MEMORIA**

Gehienez ere 7.000 karaktere erabiliz (2 orrialde gutxi gorabehera), ikasketa-programaren lehen ikastaroan egindako jarduera akademikoei buruzko informazioa eman behar duzu.

## E) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

1.–  BAI  EZ (aukeratu dagokiona)

diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideren bat eskatu eta lortu duela beste administrazio edo erakunde publikoren batetik.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo eman izanaren kopia gehitu behar da.

2.–  BAI  EZ (aukeratu dagokiona)

sartuta dagoela/ sartuta egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura batean, eta hura oraindik izapidetzen ari dela.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia gehitu behar da.

3.–  BAI  EZ (aukeratu dagokiona)

Badut/ Ez dut diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, (ezta) horretarako legezko inolako debekurik (ere), sexua bereiztearren eragindakoak barne; betiere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia aurkeztu behar duzu.

4.– Konpromisoa hartzen dut Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazteko diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen baditut edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik.

5.– Eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak dira; hala ez bada, neure gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

\_\_\_\_\_ (e)n, 20 \_\_\_\_ urteko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Izptua.:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ikerketa» izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko (fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututa dago –2010eko azaroaren 5eko EHAA–). Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira. Hartarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

## EUSKARRI-DOKUMENTUAK

Matrikula-tasak abalatzeko dokumentazio ofiziala	
Ikasketa-espeditentea, beka izan bitartean lortutako kalifikazio akademikoekin.	